

Jaiotzak % 2,8 gutxiagotu ziren 2012ko lehen hiruhilekoan

Amen % 40k 35 urte edo gehiago zituen, eta % 36, ez zegoen ezkontuta

2012ko lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako haur kopurua 4.919koa izan zen, eta hori % 2,8ko jaitsiera da aurreko urteko aldi berdinen aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Jaiotza kopuruak behera egin du herrialde guztietan, baina ez berdin: Araban, jaitsiera % 0,5ekoa izan da; Gipuzkoan, % 2koa, eta Bizkaian, % 4,1ekoa. Zehazki, Araban 788 haur jaio ziren; Bizkaian, 2.454, eta Gipuzkoan, 1.677.

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatuz gero, nagusitasun argia mantentzen da oraindik ere 30-34 urte arteko ama-taldearen partetik. Adin-tarte horretan gertatzen da jaiotzen % 41,3. Adin-talde horren atzetik datoz justu haren gainetik dagoena, 35-39 urtekoa, % 33,2rekin, eta 25-29 urtekoa, % 14 baino ez baitu hartzen adin-talde horrek.

Nahiz eta jaitsiera orokorra izan den jaiotza kopuruan 2011ko hiruhileko beraren aldean, igo egin da 40 urterekin edo gehiagorekin ama izan diren emakumeen kopurua, eta 300 jaiotakotik 321era pasatu dira 2012an. Emakume horietatik jaiotakoek guztizkoaren % 6,5 hartu dute, eta 25 urtetik beherako amengandik jaiotakoek lortu duten % 5 gainditu dute.

Ezkontzatik kanpoko jaiotzak jaiotza guztien % 36,3 dira, 2011ko lehen hiruhilekoan eskuratutako ehunekoa baino 2,8 gehiago. Gipuzkoa (% 34,7) izan da Euskal AE osoaren azpitik dauden balioak izan dituen herrialde bakarra; Araba, ordea, % 38,8ra iritsi da, eta Bizkaia, % 36,6ra. Talde horren erditze-adina umeak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen % 10 25 urtetik beherakoak baitziren.

Jaiotze-hurrenkeraren arabera, 2012ko lehen hiruhilekoan erdia baino gehiago, 2.646, lehenengo seme-alabak izan dira; 1.861 haur (% 37,8) jada beste seme-alabaren bat zuen familia batera iritsi zen, eta % 8,4ra iristen da hirugarren edo ondorengo seme-alaben jaiotza portzentajea.

Amen % 17,2k atzerriko nazionalitatea zuen

2012. urteko lehenengo hiru hilabeteetan Euskal AEn izandako jaiotzen % 17,2an, amak atzerriko nazionalitatea zeukan, hau da, horrek esan nahi du aurreko urteko hiruhileko berean baino ia 2 puntu gehiago zirela atzerritarrak. Batez besteko hori nabarmen gainditzeko Araban, non % 25,8ra iritsi baita, Bizkaiko % 16ren eta Gipuzkoako % 14,9ren aldean.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2012ko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2011ko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2011ko 1. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.919	100,0	5.294	100,0	5.063	100,0
Araba / Álava	788	16,0	864	16,3	792	15,6
Bizkaia	2.454	49,9	2.694	50,9	2.559	50,5
Gipuzkoa	1.677	34,1	1.736	32,8	1.712	33,8
Amaren adinaren arabera	4.919	100,0	5.294	100,0	5.063	100,0
≤ 24 urte	247	5,0	302	5,7	303	6,0
25 - 29 urte	687	14,0	752	14,2	697	13,8
30 - 34 urte	2.030	41,3	2.202	41,6	2.109	41,7
35 - 39 urte	1.634	33,2	1.711	32,3	1.654	32,7
≥ 40 urte	321	6,5	327	6,2	300	5,9
Amaren egoera zibilaren ara	4.919	100,0	5.294	100,0	5.063	100,0
Ezkondua	3.134	63,7	3.369	63,6	3.366	66,5
Ezkongabea	1.785	36,3	1.925	36,4	1.697	33,5
Amaren naziotasuna	4.919	100,0	5.294	100,0	5.063	100,0
Espainiarra	4.073	82,8	4.388	82,9	4.290	84,7
Atzerritarra	846	17,2	906	17,1	773	15,3
Jaiotza-hurrenkera	4.919	100,0	5.294	100,0	5.063	100,0
Lehenengoa	2.646	53,8	2.976	56,2	2.706	53,4
Bigarrena	1.861	37,8	1.872	35,4	1.935	38,2
Hirugarrena edo gehiago	412	8,4	446	8,4	422	8,3

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroako datuak



Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua](#)